

JARDUEREN OROITZA

2023



© Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Edita: Instituto Vasco de Administración Pública
Administrazio Publikoaren Euskal Institutua
ISBN: 978-84-7777-706-9

**JARDUEREN
OROITZA**

2023





AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	6
2.	40. urteurrena	8
3.	Izen-aldaketa	14
4.	Marka-irudi berria	16
5.	IVAPen antolakuntza eredua	18
6.	Kudeaketa alorreko mugari eta lorpen garrantzitsuenak	28
7.	Zerbitzuak eta produktuak	32
8.	Argitalpenak	58
9.	IVAPeko kideen parte-hartzea biltzarretan, jardunaldietan eta ebaluazioetan	61



1 Aurkezpena



Plazerra da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren 2023. urteko Jardueren Memoria aurkeztea. Gure helburu estrategikoak betetzeko, talde osoak burututako lan handiko urtea izan da. Hori dela eta, aukera aprobetxatu nahi dut erakunde honetako langile izan diren edo harekin lankidetzan aritu diren pertsona guztiei eskerrak emateko, modu batean zein bestean, haien lana, ahalegina eta profesionaltasuna dela eta.

IVAPentzat, 2023a urte berezia izan da; izan ere, 40 urte bete dira sortu zela. Horregatik, 2023ko Jardueren Oroitzan gune propioa izango dute 40. urteurrenaren inguruan ospatu ziren ekitaldi korporatiboak eta instituzionalak.

Orrialde hauetan zehar, iaz garatu genituen ekintza eta proiektu garrantzitsuenak modu errazean egituratu ditugu. 2023an, proiektu berriak jarri genituen martxan eta urtez urte eskaintzen ditugun zerbitzuak ematen jarraitzen dugu.

2023. urtean erakunde honen planak garatu eta gauzatu ondoren, urte horretako Jardueren Memoria aurkeztu da, IVAPek ekitaldian zehar egindako ekimenak jasotzen dituena.

Aurten ere, herritarrekin dugun konpromiso irmoaren isla da memoria honetan zehazten den jarduera, langileen gaitasunak gizartearen beharrekinekin konektatzeko eta garatzeko, bi aldeentzat benetako balioa sortzen duten zerbitzuak eskainiz.

2021-2024 aldirako Plan Estrategikoan jasotako helburuekin bat etorritik, gure ahaleginak ardatzen jarraitu dugu pertsonengan eta Euskadiko administrazioen ar-

teko lankidetzan-ehunean eta, horrela, proposatutako helburuak arrakastaz hedatzea ahalbidetuko duten proiektuak indartu ditugu.

Jarraian, erakunde honen eta, bereziki, erakunde hau osatzen duten pertsonen konpromisoa bermatzen duen jarduera aurkezten da.

Maite Barruetabeña Zenekorta, IVAPeko zuzendaria.



2 40. urteurrena

2023a urte berezia izan da IVAPentzat; izan ere, 40 urte bete dira IVAP sortu zela. Ospakizunen artean, bi ekitaldi izan dira aipagarriak: batetik, irailaren 22an Gasteizko Artium Museoan ospatutako ekitaldi korporatiboa eta, bestetik, martxoaren 1ean egindako ekitaldi instituzionala.



Ekitaldi instituzionala

IVAPen 40. urteurrena ospatzeko, euskal administrazioen, funtzio publikoaren eta euskararen arloko dozenaka pertsona ezagun bildu ziren martxoaren 1ean. Bilbo-ko Zorrozaurreko La Terminal eraikinean egin zen urteurrena ospatzeko ekitaldia, eta Iñigo Urkullu Lehendakaria izan zen buru, Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarekin batera. Honako hauek ere bertaratu ziren: Josu Erkoreka Lehen Lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumeneko sailburua, Jokin Bildarratz Hezkuntzako sailburua, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea, Manuel Lezertua Arartekoa eta Jose Maria Guibert Deustuko Unibertsitateko Errektorea.


Maite Barruetañena IVAPeko egungo zuzendariaren hitzaurrearen ondoren, Lehendakariak Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikitako erakunde autonomoaren zeregin erabakigarria goraiatu zuen, eta “harro” agertu zen IVAPek egindako bidearekin. Honen ildotik, eskertu zuen denbora honetan guztian lan egin duten ehunka profesional eta arduradunen konpromisoa.

Urkulluk gogora ekarri zuen IVAPen hasiera, 1983an, “ez zela batere erraza izan”, baliabide mugatuak zituen testuinguru batean, eta erakunde horren hastapenean parte hartu zuten langileen ilusioak eta konpromisoak gainditu ahal izan zituela. “Batzuek beren lanerako materiala ere ekarri zuten etxetik”, gogoratu zuen. “Aitzindariak izan ziren, baina denbora gutxian lortu zuten helburua”, Lehendakariak nabarmendu zuenez.

IVAPen bilakaeran, EAEko autogobernua berreskuratzeko zereginen eta euskal administrazio berriaren sorreran izandako beste mugarri batzuk gogoratu ondoren, langileak hautatzeko eta prestatzeko beharrei erantzunez, eta euskara zerbitzu hizkuntza gisa ezartzeari dagokionez, Urkullu ziur agertu zen IVAPek erantzun egingo diela administrazioak izango dituen premia berriei. Areago, adierazi zuen ziur dagoela IVAP “gai izan behar dela euskal gizarteak sortutako talentua Administrazio Publikora erakartzeko” eta, integratu ondoren, hura etengabe hobetzeko beharrezko tresnak eskaintzeko.

Jarraian ekitaldi instituzionaleko argazkiak:





Ekitaldi korporatiboa

Gasteizko Artium Museoa ospatu genuen ekitaldi korporatiboa. Bertan, Adimen Artifizialaren inguruko hitzaldi batzuk jaso eta gero, IVAPeko langileek luntx bat izan genuen ekitaldiaren amaiera elkarrekin partekatzeko.

Jarraian, egun berezi honetan izan genuen egitaraua eta argazkiak:



23.09.22

ivap₄₀

Adimen artifiziala IVAPeko lan-arloetan
Artium museoa, Frantzia kalea (Gasteiz)

12:00 Harrera. Olatz Garamendi Landa (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua).
12:10 Adimen artifiziala eta demokrazia. Daniel Innerarity (Filosofia Politikoa katedraduna, Ikerbasque / Adimen Artifiziala eta Demokrazia Katedra, Florentziako Europako Institutua).
12:30 Adimen artifiziala eta prestakuntza. Carles Ramío (Politika eta Administrazio Zientzietako katedraduna).
12:50 Adimen artifiziala eta hautaketa prozesuak. Alba Soriano (Zuzenbidean doktorea, Valentziako Unibertsitateko irakaslea).
13:10 Hizkuntza teknologia. Itziar Aldabe Arregi (Ikeritzailea, HITZ Hizkuntza Teknologikiako Euskal Zentroa - Ixa, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU).
13:30 Galdarak.
14:00 Luntxa izango da bertarotzen diren guztientzat.



3

Izen aldaketa



Urriaren 13an, 3/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA argitaratu zen, irailaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Legegintzako dekretu horretan aipatzen denez, aurrerapen handiak egin dira eus-kara teknikoan eta juridikoan Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari buruzko 16/1983 Legea onartu zenetik hona, eta, ondorioz, zaharkituta geratu da lege ho-rren euskarazko bertsioan erabilitako hizkera.

Hori dela eta, beharrezkoa izan da euskarazko bertsio horri beste egitura gra-matikal eta linguistiko bat ematea, euskarak izan duen bilakaerarekin bat etorritz. Horrela, arauaren bi bertsio linguistikoaren baliokidetasuna bermatuko da eta hiz-kuntza-desegokitasunaren ondorioz sor daitezkeen segurtasun-gabezia juridiko-ko arazoak saihestuko dira.

Legegintzako dekretu bidez onartu den testu bategin berriak erregularizatu eta harmonizatu besterik ez du egiten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari bu-ruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legearen euskarazko bertsioa, ez baitio eragiten inolako aldaketa materialik edo arauaren edukiari edo esanahiari lotutakorik. Eus-kara tekniko-juridikoaren arloan erabili ohi diren printzipio eta irizpideekin bat dator euskarazko oraingo izendapena, eta osoki bermatzen du euskarazko eta gaz-telaniazko bertsioen arteko erabateko baliokidetasuna, lege horrek aldarrikatzen duena.

Hemendik aurrera hau izango da gure euskarazko izena:
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EUSKAL INSTITUTUA



4


Marka-irudi berria



2023. urtean, IVAPeko izena aldatzeaz gain, marka-irudi berria sortu dugu. Aldaketa horrek, beste batzuekin batera, erakusten du aurrera egiten duen egitasmoa garela. Aurrerantzean, honakoa izango da IVAPen marka-irudia:




Geziaren ikurrak ongintzako esanahi aberatsa du, lorpenak eta bila-kaera adierazten baititu. Horregatik, gure marka-irudi berriak gezi bat izango du. IVAPeko irudi-markan aitzindari eta jakintsu gakoak azpimarratzeko, gezi forma beteta marraztuko dugu; geziaren norabidea aurrerantz eta gorantz irudikatuta.



5

IVAPen antolakuntza eredua



IVAP erakunde autonomoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio

publikoen zerbitzura bideratzen du bere zeregina, eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke haren xedeak:



16/1983 Legeak¹ honako hauek hartzen ditu bere egituraren eta eginkizunen alderdi esanguratsutzat:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, atalak, sailak edo zerbitzuak antolatzeke bidea zabaltzen du.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortzen ditu, eta nola osatuko diren eta zein eginkizun izango dituzten zehazten du. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek

- IVAPi aurrekontu propioa ematen dio.
- IVAPen egoitza Gasteizen ezartzen du².

¹ 16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzkoa.

² Legeak Oñatiko Unibertsitate zaharraren eraikinean ezartzen zuen IVAPen egoitza, eta 2007an egoitza Gasteizera aldatu zen (2/2007 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

Hausnarketa estrategikoa

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herri-tarrei kalitatezko zerbitzu efizienteak emateko, bi hizkuntzetan, eta zerbitzu publikoaren balio partekatuetan oinarrituta. Lankidetzan hori honela gauzatzen da:

- Euskal administrazio publikoetako langileak hautatzea eta prestatzea.
- Euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatzea Administrazioan, eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa finkatzea eta zabaltzea.
- Euskal autonomiaren hizkuntza, lege eta administrazio arloko aholkularitza eta ikerketa bultzatzea, eta kudeaketaren hobekuntza.
- Administrazioaren digitalizazioa sustatzea.

IKUSKERA

IVAPek erreferentzia-zentro izaten jarraitu nahi du bezeroari zuzendutako produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoen eskaintzaren bidez, hurrengo hauek oinarri hartuta:

- Baliabide eta pertsona nahikoa, etorriko diren jarduera berriei aurre egiteko.
- Pertsona kolaboratzaileak, erantzunkideak eta etengabeko ikaskuntzan ari direnak.
- Kudeaketa aurreratua.
- Transformazio digitala.
- Euskararen erabilera.
- Berdintasuna.
- Gardentasuna.

BALIOAK

Funtzio publikoa arautzen duten balio eta printzipio etikoez gain, kalitatezko zerbitzua emateko aukera ematen digutenak azpimarratu nahi ditugu:

- Bezero eta gizartearenganako orientazioa: bezeroen eta gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrak ulertzen eta asetzen ahalegintzen gara.
- Barne-komunitatearekiko konpromisoa: IVAPeko profesionalak gure funtsezko aktiboa dira, haiek sortzen baitute balio erantsia.
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza: IVAPek etengabeko berrikuntzan oinarritzen du bere lana, behar berrietara egokituz eta eraldatzeko bokazio argiarekin.

EGITURA

ZUZENDARIA

Maite Barruetabeña Zenekorta

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak eman-
go ditu egiaztagiriak, tituluak eta diplomak; gainera, gas-
tuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.

Nagore Alberdi Berasaluce


Zerbitzu eta atal guztiak koordinatzen ditu, eta zuzendaria ordezkatzeko du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, EVETU (Lurralde eta Hiri Ikasketarako Euskal Eskola) eta Zerbitzu Orokorrak.



**Koordinazio eta
Kudeaketako
Idazkaritza**

Imanol Uriguen Garaizabal

Bere egitekoa hautaketa eta pres-
takuntzari dagozkion lanak betetzea da. Horretarako, Hautaketa Zerbitzua eta Prestakuntza Zerbitzua ditu.



**Hautaketa eta
Prestakuntzako
Zuzendariordetza**

Garbiñe Doval Garcia

Euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza, terminologia eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea. Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuak, Terminologia Zerbitzuak eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak osatzen dute zuzendariordetza hau.



**Euskara
Zuzendariordetza**

LANTALDEA

PERTSONAK

IVAPen, 142 pertsonak lan egiten dute, 93 emakumek eta 49 gizonen, modu honetan banatuta:

LANPOSTUA	EMAKUMEZKOAK 	GIZONEZKOAK 	GUZTIRA
ZUZENDARIA	1		1
IDAZKARI NAGUSIA	1		1
ZUZENDARIORDEAK	1	1	2
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA	1		1
ZERBITZUBURUAK	5	3	8
ARLOBURUAK	2	4	6
TEKNIKARIAK	56	33	89
ADMINISTRAZIO-LANGILEAK	24	8	32
MENDEKOAK	2		2
GUZTIRA	93	49	142

Lantokiak eta helbideak

Langile gehienek Gasteizko egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek IVAPen beste hiru egoitza hauek ere eskueran dituzte haien kudeaketak egin ahal izateko: Bilbokoa, Donostiakoa eta Oñatikoa.

IVAP - **Gasteiz**ko egoitza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

IVAP - **Bilbo**ko egoitza
Rekalde zumarkalea 18, 1
48009 Bilbao

IVAP - **Oñati**ko egoitza
Unibertsitateko etorbidea
20560 Oñati

IVAP - **Donostia**ko egoitza
San Bartolome kalea, 28
20007 Donostia

KUDEAKETA-SISTEMATIKA

IVAP 2001ean hasi zen Kudeaketa aurreratuaren kultura ezartzen. Orduan, zuzendaritzak apustua egin zuen erakunde osoa hartuko zuen etengabeko hobekuntza-proiektu baten alde. Garai hartan, EFQM-rako ereduari jarraituz; orain, Euskaliteko Kudeaketa Aurreratuko Eredua (KAE) ispilu duela. Aipatu beharra dago, gainera, IVAPek, gaur egun, zuzenean laguntzen duela “Aurrerabide” Eus-

ko Jaurlaritzako proiektua, Euskadiko administrazio orokorrean kudeaketa aurreratu ezartzeko proiektua, hain zuzen ere, non IVAP aitzindari eta erreferentea den.

Hauek dira erakundeak burutu dituen aurrerapauso eta jarduera batzuk:



Estrategia

- Bost hausnarketa estrategiko (2004, 2008, 2012, 2016 eta 2020) eta dagozkien bost urteko plan estrategikoak. Oraingoa 2021-2024 Plan Estrategikoa da.
- Urteroko kudeaketa-planak, plan estrategikoen hedapena.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, lau autoebaluazio.
- KAE Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, autoebaluazio bat.
- EFQM kalitate-eredu europarraren arabera, kanpoko ebaluazio bat: zilarrezko Q.
- Kudeaketa Aurreratuaren Ereduarekiko kanpo-ebaluazioa eta Zilarrezko A aitortpena (Garatua I).

Bezeroak

- **Zerbitzu-kartak:** erakundeak sei karta ditu, urtero berrikusten ditugu eta bi urtez behin ebaluatzen ditu Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileen Klubak, non IVAPek parte hartze aktiboa duen 2006tik. Hauek dira zerbitzuetako kartak:
 - Hautaketa: herritarrei zuzenduta.
 - Hautaketa: administrazioei zuzenduta.
 - IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
 - Prestakuntza.
 - Liburutegia / Dokumentazio-gunea.
 - Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta.
- Zerbitzuen katalogoa: urtero berrikusten dugu.
- Bezeroen beharrak eta espektatibak ezagutzeko lau azterketa (2008an, 2012an, 2017an eta 2021ean).
- Zuzeneko erabiltzaileak diren bezeroen gogobetetasuna neurtzen dugu, IVAPeko zerbitzuak jaso dituzten euskal administrazioetako langileak izaten baitira (ikastaroetan, jardunaldietan eta abarretan parte-hartzaile) eta kasu zehatz batzuetan herritar guztiak (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan...). Horiei guztiei jasotako zerbitzuaren gogobetetasuna adierazteko inkesta betetzeko eskatzen diegu.



IVAPen mapa estrategikoa

MISIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko

IKUSKERA

Erreferentzia-zentro izaten jarraitu bezeroari zuzendutako produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoen eskaintzaren bidez

BALIOAK

Bezero eta gizartearen-ganako orientazioa
Barne-komunitatearekiko konpromisoa
Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza



ERREFERENTE PUBLIKOA

IVAP, administrazioaren eremuan, kalitatezko ereduak izatea eta erakundeak gure produktu eta zerbitzuetara erakartzea

Euskal Autonomiaren Erkidegoaren Administrazio Publikoan martxan jartzen diren programa berritzaileetan parte hartzea

IVAPen jarduerari lotutako *benchmarking* eskaerak eta errekonozimenduak jasotzea

IVAPek, administrazio eremuan, produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzea

Zerbitzuak eta produktuak emateko modu berriak egokitzea eta garatzea

Kudeaketa aurreratuan sakontzea

Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzen jarraitzea



ERAKUNDE ERALDATZAILEA

Interes taldeen gogobetetasuna hobetzea

Berrikuntza eta sormenarekin zerikusirik duten kanpo aintzatespenak lortzea

Berrikuntzaren alde proaktiboak izatea

Pertsonen lan-jardunerako behar dituzten gaitasunak ebaluatzeko metodologia eta teknologia berritzea

Adimen artifiziala eta big-dataaren erabilera bultzatzea



PERTSONAK OINARRI

Gogobetetako pertsonak izatea

Pertsona kolaboratzaileak, erantzunkideak eta etengabeko ikaskuntzaren ari direnak izatea

Ezagutzaren transmisioa kudeatzea

IVAPeko barne antolaketa hobetzea



BEZEROAK HELBURU

Gure produktu eta zerbitzuekin gogobetetako bezeroak izatea

Bezeroen beharrak ezagutzea eta asetzea

Bezeroekiko harreman-bideak hobetzea

Euskararen erabilera normalizatzeko tresnak eskaintzea



GIZARTEARI BEGIRA

IVAPeko langileek foro publikoetan izandako parte-hartze aktiboa izatea

IVAPeko webguneko bisita-kopurua mantentzea

Administrazioan sartzeko prozesuetan hobekuntza eta berrikuntza sustatzea

Administrazioaren baliabideak herritarren eskura jartzea

Ikerketa sustatzea eta bultzatzea

IVAPen gardentasun-maila hobetzea

Berdintasuna hobetzeko ekimen kopurua handitzea

IVAP-en 2021-2024 plan estrategikoa

Pertsonak

- Harrera eta agurra egiteko plana.
- Prestaivap: IVAPeko pertsonen prestakuntza plana. IVAPeko langileen eskarietatik eta behar-diagnostikotik abiatuta lantzen den urteroko plana da.
- IVAPeko kudeaketa aurreratuaren ereduaren urteko aurkezpen-saioak.
- IVAPeko ebaluatzaileen taldea sortzea, eta prestakuntzaren planifikazioa eta lankidetzaren Kudeaketa aurreratuaren ereduaren Euskaliteko ebaluatzaileen Klubarekin eta Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa aurreratuaren euskal ereduaren Aurrerabide proiektuarekin.
- IVAPeko Zerbitzuen kartetako ebaluatzaileen taldea abian jartzea eta Q-epeako Zerbitzu-kartak ebaluatzeko taldearekin lankidetzaren finkatzea.
- 26 prozesu-talde, kudeaketarako, jarduerarako eta laguntzarako bederatzi batzordetan banatuta.
- Lantalde egonkorak edo proiektuekin lotuta.
- IVAPeko pertsonen gogobetetasunaren neurketa zortzi aldiz egin dugu.
- Aldizka berritzen den barne-komunikaziorako mapa.
- Lidergoa: definizioa eta konpetentziak berrikustea. Prestakuntza eta 360 graduko ebaluazioa.



Berrikuntza

- Prestakuntza: laguntzeko, prestatzeko eta aholkuak emateko sistematika (SAC, prozedurari buruzko eskuliburuak).
- Barne-bezeroaren gogobetetasunaren ebaluazioa.
- Zeharkako prozesu-mapa.

Gizartea

- Konpromiso-diplomak 2009 eta 2011n.
- Aintzatespenak, zuzenak eta prentsakoak.
- Bekak, laguntzak eta ikerketa-lanak.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.
- Gobernu irekia ("Open data"): datu berrerabilgarrien erakusketa publikoa (itzulpen-memoriak, beste administrazio batzuen lan-eskaintza publikoak...).
- IVAPEk gizartean duen konpromisoaren lehenengo neurketa.

Emaizak

- Aginte-taula estrategikoa zeina plan estrategiko bakoitzean berrikusten den. Adierazle estrategikoen urteroko berrikusketa.

Aginte-taula estrategikoa

2021-2024 Plan Estrategikoak bost lan-lerro eta helburu estrategiko batzuk zehazten ditu. Aginte-taula estrategikoa (ATE) da IVAPEk planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabiltzen duen kudeaketa-tresna, eta lan-lerro horiekin eta helburu estrategikoekin lerrokatutako adierazle-multzo batek osatzen du. 2021-2024 aldirako ATE 2020an egindako hausnarketa estrategikoaren emaitza da.



6

Kudeaketa arloko mugarri eta lorpen garrantzitsuenak

Aurrekontua: 21.035.000 €

Jarduerari buruzko datu nagusiak

Parte hartzaileak
prestakuntza-ekintzetan

19.474

Hautaketa-epaimahaietan
parte hartzea

551

Itzuli edo
berrikusitako hitzak

15.804.140

Enplegatu publikoak
prestakuntzarako
dirulaguntzen programan

85.763

Harpidedunak
Administrazioa
Euskaraz aldizkarian

14.541


Argitalpenak

17

Aurrekontua eta jarduerari buruzko datu nagusiak

- Aurrekontua: **21.035.000**
- **19.474** parte-hartzaile prestakuntza-jardueretan
 - Prestakuntza arloa **16.796**
 - EVETU **377**
 - Hizkuntza-prestakuntza arloa **2.301**
- Prestakuntzarako dirulaguntzen programa, erakunde publikoetako **85.763** pertsonarentzat.
- **551** parte-hartze hainbat erakundetako hautaketa-epaimahaietan.
- Guztira, **15.804.140** hitz itzuli edo berrikusi dira.
- **14.541** harpidedun, *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian.
- Administrazio Hizkera Arloak kudeatzen duen blogean, **23** sarrera argitaratu dira euskaraz eta **23** gaztelaniaz.
- **15.871** harpidedun, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa jasotzen dutenak.
- **17** argitalpen: **7** liburu eta **10** aldizkari-ale
 - *Administrazio Euskaraz* **4**
 - *Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkaria* **3**
 - *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria* **3**
- **904** funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.
- **7.404** monografia eta aldizkari espezializatu liburutegian.

- Elet aplikazio informatikoak **384** erabiltzaile izan ditu eta, guztira, **6.379** kontsulta egin dira.
- Webguneari dagokionez, **4.651.830** saio erregistratu ziren, eta orriek **5.758.616** bisita izan zituzten. Saioen batez besteko denbora 1:28 minutukoa izan zen, eta, batez beste, 1,24 orri ikusi ziren saioko.
- ADI Ivap instalatuta dutenak: **9.338** Android-en eta **6.533** Apple-en.



2021-2024 aldirako Plan estrategikoa

Berriro ere, bosgarren plan estrategikoa aurreko 2017-2020 Plan Estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatutako emaitzen fruitua da, batetik, eta IVAPek 2020an egin zuen hausnarketa estrategikoarena, bestetik.

2021-2024 Plan Estrategikoak berrikusi eta eguneratu egin ditu IVAPen Misioa, Ikuskera eta Balioak, eta bost lan-lerro hauek finkatzen ditu:

- Erreferente publikoa.
- Antolakunde eraldatzailea.
- Pertsonak oinarri.
- Bezeroak helburu.
- Gizarteari begira.

Hausnarketa estrategikoaren oinarria IVAPeko pertsonen parte-hartze aktiboa da, eta hausnarketaren une garrantzitsuetan gauzatzen da: AMIAk aztertzean, Misioa, Ikuskera eta Balioak berrikustean eta azken dokumentua balioztatzean. Zuzendaritza-taldeak uneoro zuzendutako hainbat forotan antolatzen da parte hartzea.

Ebaluazioak

Urtero bezala, 2023an ere, IVAPek bere zerbitzu-kartak ebaluatzeko eskaera egin dio Q-epeari; Kudeaketa aurreratuan diharduten Euskadiko erakunde publikoen sarea da Q-epea, eta sare horretako kide da IVAP 2006tik. Q-epeak metodologia propioa sortu du erakunde laguntzaileen zerbitzu-kartak ebaluatzeko eta, horren bidez, zerbitzu-kartaren bi urtez behineko ebaluazio objektiboa eta independentea bermatzen du. 2023an, Zerbitzu-karten “Q-epea” egiaztagiri bana eman zien IVAPeko bi kartari: Liburutegia-Dokumentazio zerbitzuen kartari eta Prestakuntza Zerbitzuen kartari.

Aitorpenak eta esker onak

Halaber, IVAPeko Zuzendaritzak pertsona batzuk aitortu zituen dedikazio berezia, jarduera bikaina edota polibalentzia eta malgutasun funtzionala izateagatik. Erakundeak modu sistematizatuan egiten dituen aitorpen formalak dira, IVAPen eta pertsonen arteko harremana indartzeko asmoz, portaerak eta lorpenak helburu estrategikoekin bat egiteko estrategiaren barruan.

Horretaz gain, aitorpen-ekitaldia egin zitzairen, iaz, IVAPen lanean jardun duten zenbait langileri. Urte bukaeran, luzaroan lankide izan ostean, erretiroa hartu berri zeuden Fulgen Aledo, Miren Tena eta Angel Cornes omendu genituen.

7

Zerbitzuak eta produktuak





Prestakuntza

PRESTAKUNTZA OROKORRA

Prestakuntza-programak eta planak

- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
 - Lineako prestakuntza.
 - Aurrez aurreko prestakuntza.
 - KnowInn programa: prestakuntza-ekintza (proiektuak ezartzeko prozesuekin batera doan prestakuntza).
- Prestakuntza programa irismenaren arabera:
 - Orokorrak edo zeharkakoak.
 - Administrazio edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak.

Prestakuntza-beharren diagnostikoak

Administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta, kolektiboaren prestakuntza-beharrak aztertzen dira metodologia desberdinak erabiliz.

Prestakuntzaren ebaluazioa

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.

Transferentziaren ebaluazioa: prestakuntzaren bitartez eskuratutako ezagupenak eta trebeziak lanpostura transferitu diren ebaluatzea.

Prestakuntza-ekintzen homologazioa

Homologazio aginduan oinarrituta, ikastaroa bera ziurtatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa

Programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Hau da Prestakuntza-programaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea.

Berdintasunari buruzko prestakuntza

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak jasotzen dituen betebeharrak betetzeko, IVAPeko prestakuntza zerbitzua neurri berriak garatzen ari da orain arte egindakoak osatuz eta aukera berriak landuz.

Berdintasun Legean jasotako aldaketen artean, garrantzitsuak izan dira 18. artikuluan izandako berrikuntzak berdintasunaren gaineko prestakuntzari buruz. Besteak beste, euskal herri-aginteetako langile guztiek oinarritzko, mailakako, etengabeko eta derrigorrezko prestakuntza jasotzeko agindua ezartzen du. Eta, era berean, genero ikuspegia txertatu behar da berriaz emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa ez den formazio eskaintza osoan ere.

2. TAULA PRESTAKUNTZAREN PROGRAMAZIOA ETA JARRAIPENA (2020-2023)

	2020	2021	2022	2023
Aurreikusitako prestakuntza-ikastaroen kopurua	447	679	644	803
Egindako ikastaroen kopurua	379	641	601	720
Ikastaroen betetze-maila (%)	% 78,89	% 94,40	% 93,30	% 89,66
Matrikula kopurua	11.474 E = 3.454 G = 1.350 DG* = 6.670	18.748 E = 12.649 G = 5.748 DG* = 351	13.620 E = 8.985 G = 4.411 DG* = 224	16.796 E = 10.729 G = 5.874 DG* = 193
Ikaskuntzarekiko asebetetzearen adierazle orokorra *2	8,2	8,2	7,3	8,48
Irakasleak edukiak emateko erabili duen antolaketa eta erabili duen metodologiari buruzko adierazle orokorra *3	8,7	8,7	7,5	7,52
Berdintasun arloan aurreikusitako prestakuntza-ekintzen kopurua	14	30	24	38
Berdintasun arloan egindako prestakuntza-ekintzen kopurua	12	28	21	29

* E = emakume / G = gizon / DG = daturik gabe

* 2: 2023. urtean Transferentziarekin lotutako faktoreen galdetegia hasi zen erabiltzen eta adierazlearen izena egokitu da. Aurreko urteetan "ikasleen asebetetzearen adierazle orokorrari" dagokio

* 3: 2023. urtean Transferentziarekin lotutako faktoreen galdetegia hasi zen erabiltzen eta adierazlearen izena egokitu da. Aurreko urteetan "irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorrari" dagokio.

3. TAULA PRESTAKUNTZAREN EBALUAZIOA

Helburuen lorpena duten prestakuntza-ikastaroen kopurua	729
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa	% 91,14
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa (on-line eta ikastaro mistoetan)	% 93,41



4. TAULA HOMOLOGAZIOA

Homologazio-espedienteen kopurua	50
Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 100
Behin betiko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 90
Erakunde eskatzaileen kopurua	7

5. TAULA GARAPEN PROFESIONALA LANTZEKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA (2020-2023)

Entitateak	Prestakuntza-planak				Langileak*			
	2020	2021	2022	2023	2020	2021	2022	2023
Udalak	21	21	28		10.012	10.990	10.528	11.126
Foru Aldundiak	3	3	3		8.831	8.888	8.950	8.973
EHU-UPV	1	1	1		1.547	1.547	1.671	1.906
Eusko Jaurlaritzaren sailak	0	0	0		—	—	—	—
Eusko Jaurlaritzaren entitate autonomoak	0	0	0		—	—	—	—
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1	1	1		11.950	11.950	11.950	11.948
Osakidetza	1	1	1		26.400	26.400	26.400	26.400
Irakasleen prestakuntza	1	1	1		20.048	20.048	20.048	25.410
Guztira	28	28	35		78.788	79.823	79.547	85.763

* Prestakuntza-planetako hartzaileak.



EVETU

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko prestakuntza

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren (EVETU) helburuetako bat da prestakuntza- eta lanbide-hobekuntzako jarduerak ematea lurralde- eta hiri-plangintza arloan, exekuzioaren kudeaketan eta hirigintza-diziplina arloan.

Hirigintza eta Lurralde Ikasketak ikastaroa

Ikastaroa sei eskola-modulu teoriko-praktikok osatzen dute (700 ordu) eta erakunde edo enpresetako aukerako praktikak (300 ordu). Moduluak deialdi bakar batean egin daitezke osorik edo banaka.

Sei moduluak egin ondoren, IVAPek “Hirigintzako diploma” emango du.

2023an, Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako XLVIII (48) Ikastaroa amaitu da. Ikastaroko sei modulu egin dira, hiru Bilbon (IV., V. eta VI. moduluak) eta III., IV. eta V. moduluen bigarren edizioak Donostian. Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako XLIX (49) Ikastaroa (2023-2024) hasi da, lehen hiru moduluekin (I., II., III.).

Ikastaro monografikoak

Hirigintzari, lurralde-antolamenduari eta ingurumenari buruzko ikastaro monografikoak eta jardunaldiak egin dira:

- Jornadas sobre novedades en Urbanismo.
- Curso Superior de Urbanismo.
- Valoraciones Urbanísticas.
- Curso básico de urbanismo.
- Hacienda Local, especial referencia al urbanismo.
- Licencias urbanísticas.
- Hirigintza ikastaroa (2).
- Uso del Visor geoEuskadi (2).
- GeoEuskadi bisorearen erabilera.



Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa

IVAPeko Liburutegiko eta Dokumentazio Zentroko zerbitzuak aurkezten eta zabaltzen dira prestakuntza-jardueretan.

6. TAULA EVETUKO DATUAK 2023*							
	Prestakuntza- -ekintzak	Prestakuntza- -ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskainitako ordu- -kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	140	87	% 62	700	% 97
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	3	3	47	32	% 68	391	% 100
Ikastaro monografikoak	11	9	190	130	% 68	201	% 95
Guztira	20	18	377	249	% 66	1.292	% 97

* Datuak urte naturalean.

6. TAULA EVETUKO DATUAK 2022*							
	Prestakuntza- -ekintzak	Prestakuntza- -ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskainitako ordu- -kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	149	77	% 52	700	% 99,4
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	26	19	% 73	276	% 100
Ikastaro monografikoak	12	7	244	142	% 58	214,5	% 98,6
Guztira	20	15	419	238	% 57	1.190,5	% 99

* Datuak urte naturalean.




6. TAULA EVETUKO DATUAK 2021*

	Prestakuntza- -ekintzak	Prestakuntza- -ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	7	7	141	96	814	% 99
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	24	12	276	% 96
Ikastaro monografikoak	12	10	269	187	267,5	% 78
Guztira	21	19	434	295	1.357,5	% 91

* Datuak urte naturalean.

6. TAULA EVETUKO DATUAK 2020*

	Prestakuntza- -ekintzak	Prestakuntza- -ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagirien %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	130	70	700	% 100
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	40	21	276	% 99
Ikastaro monografikoak	7	5	122	82	128	% 99
Guztira	15	13	292	173	1.105	% 99

* Datuak urte naturalean.

Hizkuntza-prestakuntza

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK LORTZERA BIDERATUTAKO EUSKARA-IKASTAROAK

- Oinarrizko ikastaroak, 3. hizkuntza-eskakizunaren gaitasun mailara artekoak:
 - Egunean bi zein bost orduko ikastaroak dira. Atletik C1 mailara artekoak. Urrian hasi eta maiatz-ekainera bitartekoak; horrez gain, udako ikastaroak ere eskaintzen ditugu.
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.
- Goi mailakoak, 4. hizkuntza-eskakizuna prestatzeko ikastaroak:
 - Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira, astean hiru egunetan eta C2 mailakoak.

Deialdi bakoitzean, zerbitzu zuzendariak edo erakundeko arduradunak baimendutako modulua eska dezake langileak. IVAPek eskainitako modulu horiek lanorduetan edo lanorduz kanpo egin daitezke. Hala ere, IVAPekin hitzarmena duten erakundeetako langileek autoikaskuntza lanorduz kanpo bakarrik egin dezakete. Matrikula orriaren bidez, lanorduetan edo lanorduz kanpo ikasiko duen langilea HABEk homologatutako edozein euskaltegitan matrikula daiteke.

ELEBI PROGRAMA

ELEBI programak berariazko laguntza eskaintzen die erabilera-plan barruan sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako langileei. Prestakuntza hori ahozko jarduna zein idatzizko dokumentuak euskaraz egin behar dituzten langileentzat da eta laneko jardunaren arabera, antzeko interes komunikatiboak dituztenekin osatzen dira mintegiak: dirulaguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak, harrera postuetan dauden langileak.

Mintegi horiek sail bereko partaideek edo sailartekoek osatzen dituzte. Alegia, sail ezberdinetakoak ere izan daitezke partaideak, baldin eta lan eginkizun berberak badituzte.

Oro har, mintegietan lau eta sei partaide bitarteko lan-taldeak osatzen dira, astean ordu eta erdiz, batez beste. Taldeko prestakuntzaz gain, langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonala izaten du tutorearekin.

Tutoreekin batera egitasmoaren beste eragileak sailtako normalkuntzako teknikariak dira, IVAPekin lankidetzan aritzen baitira mintegiak antolatzeko. Izan ere, beraiek ezagutzen dituzte ondoen langileen benetako behar komunikatiboak.

LAN-JARDUNARI LOTUTAKO BERARIAZKO HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

Euskara lan hizkuntza izateko helburua betetzeari begira antolatzen da berariazko hizkuntza prestakuntza.

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira bai aurrez aurreko, bai lineako eta baita jardun biko ikastaroak ere, administrazioko langileentzat (Ikusi 11. taula).

IDAZLAGUN PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako langileek sortutako euskarazko idazkiak zuzentzen dituzte idazlagunek, bai eta testuak sortzean izan ditzaketen zalantzak argitu ere. Ohiko zuzenketa izan beharrean, zuzenketa didaktizatua egiten dute, alegia, zuzenketekin batera, oharren bidezko azalpenak txertatzen dituzte. Sarritan, testuan sakontzeko baliabideak ere ematen dizkiote erabiltzaileari.

Zuzenketa maila eta azalpenak erabiltzailearen hizkuntza mailara egokitzen dira. Ez da hiperzuzenketa egiten: zuzentasuna, koherentzia eta egokitasuna bermatzen bada ere, jatorrian idatzitakoa ahal den gehien errespetatzen saiatzen dira.

Zalantzak argitzeko zenbait bitarteko eskaini ohi dira: posta elektronikoa, telefonoa eta aurrez aurreko arreta. Zuzenketak oso azkar bideratzen dira, betiere testuaren luzeraren arabera, baina eskaera gehienak egunean bertan zuzentzen dira.

7. TAULA IDAZLAGUN PROGRAMA

Erabiltzaile kopurua	134
Zuzenketa eskaera	656
Zuzendutako hitz-kopurua	651.058
Kontsultak	75
Erabiltzaileen gogobetetze indizea	9,4


8. TAULA HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZAKO IKASLEAK (2022/2023 IKASTURTEA)

	Astean, 10 ordu	25 ordu, Barnetegia	Autoikaskuntza	4. HE	Udako ikastaroak	Besterik	Guztira
Eusko Jaurlaritza	171	29	138	64	20		422
Foru-administrazioak	71	6	16	25	5		123
Toki administrazioak	232	1	71	50	26		380
Osakidetza	784	85	236	5	45		1.155
UPV/EHU	29	24	1	5	8		67
Beste batzuk	61	48	22	14	9		154
Guztira	1.348	193	484	163	113		2.301* H = 1.765 M = 536

* E= emakume / G= gizon

9. TAULA ELEBI

Mintegi kopurua	5
Langile kopurua	24



10. TAULA HIZKUNTZA-PRESTAKUNTZA, EUSKARAREN ERABILERA-PLANEN BARRUAN DAUDENENTZAT

	Taldeak	Ikasleak		Taldeak	Ikasleak
A1 mailako birziklatze ikastaroa	0	0	Hizkuntza inklusiboa	2	25
2.HE: Birziklatze ikastaroa	4	49	Lenguaje inclusivo	6	124
2.HE: Ahozko birziklatzea	0	0	Mezu elektroniko egokiak idatzi	4	44
3.HE: Birziklatze ikastaroa	5	39	Testuak zuzentzeko moduez	0	0
Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikoak	5	36	2. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	17
Bileren kudeaketa eta hizkuntza-estrategiak	0	0	3. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	6	76
Propuesta para la mejora del lenguaje administrativo	2	18	4. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	9	109
Testu argiak euskaraz: hitz-ordena eta puntuazioa	8	103	2. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	0	0
Euskaltzaindiaren web-orria	3	34	3. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	5	47
Euskara ingurune digitalean	2	13	4. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	30
Trebakuntza zer den: ELEBI eta bakarkako trebakuntza	0	16	Itzultzaile neuronala itzulpengintzan	4	39
Itzultzaile neuronala testugintzan	4	39	Ahozko jarduna nola hobetu azterketetatik harantzago	2	18
Jendaurrean efikaziaz hitz egitea	0	0	Lenguaje claro en la publicación de servicios	1	12
Soziolinguistika: aldagai nagusiak	1	5	Erabiltzaile gaitutik aditurako bidean: C2 atarikoak	3	39
20 aholku hizkera juridikoa hobetzeko	2	28	Euskararen normalizazio juridikoa	2	33
Administrazioan komunikazioa erraztu	2	23	Bilera eraginkorrak	2	15
Bilera akta eta txostena	2	21	Hizkera argia administrazioan	2	14
Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria	1	6	Gozatu eta komunikatu	1	12
Cómo escribir para la web	1	4	Weberako nola idatzi	0	0
Euskaltzaindiaren arauak	3	34	Esaldi luzeen itzulpena (IZO)	2	29
Gutuna eta ofizioa	1	10	Euskaraz ahaldundu	1	9
Hizkera Juridikoa	1	10	Genero ikuspegia hizkuntzan	0	0
			TOTAL	117	1.111

Pertsonen hautaketa eta kompetentzien ebaluazioa

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak araututakoa betez, IVAPek kide titular eta ordezeko bana izendatzen ditu euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurre-eramatzen dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan

Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarri ereduak bidali, oinarriak aztertu, ikasgaiak taxutu, aholkularitza juridikoa...); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak...).

Probak prestatzea edota zuzentzea

Zenbait administrazio eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzen, aplikatzen eta zuzentzen ditu IVAPek.

Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea

Lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko probak taxutzea, aplikatzea eta zuzentzea edo euren ezaugarri tekniko eta pertsonaletara doitzeaz arduratzen da IVAP: elkarriketak, proba psikoteknikoak eta abar.

Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiten du IVAPek.

Aldi baterako lan-eskaintzak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aldi baterako langile-beharrei erantzuna emateko, lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuetarako deia egin eta horien kudeaketa egiten du IVAPek.

2021eko otsailean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsei buruzko araudiaren ondorioz, lanpostuak aldi baterako betetzeko Atariko lan-eskaintzeta-rako deia egin eta horiek kudeatzen ditu IVAPek.

Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa eta kontsulta-aukera Adi IVAP aplikazioan eta webgunean

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz, eta Adi IVAP aplikazioaren bidez kontsultatzeko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.

11. TAULA HAUTAKETA-PROZESUETAKO DATUAK (2020-2023)

	2020	2021	2022	2023
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (prozesu kopurua)	157	207	210	551
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (entitateen kopurua)	61	70	69	100
Epaimahai arruntetarako izendapenak (titularrak eta ordezekoak)	258	320	330	1.065
Euskara probetarako izendapenak (titularrak eta ordezekoak)	218	272	220	633


12. TAULA LANKIDETZA-MOTAK (2020-2023)

	2020		2021		2022		2023	
Lankidetzatza jaso duten entitate publikoak	59		70		30**		21	
Azterketak prestatzea (test eta garapen erakoak)	57	% 28,50	78	% 26,90	27	% 23,08		
Irakurgailu optikoz azterketak zuzentzea	36	% 18,00	79	% 27,24	35	% 29,91	53	% 75,71
Proba psikotekniko eta elkarrizketak egitea	69	% 34,5	70	% 24,14	31	% 26,5	1	% 1,43
Bestelako aholkularitzak (oinarriak aztertzea, txostenak, aholkularitza orokorra...)	38	% 19,0	63	% 21,72	24	% 20,51	16	% 22,86

13. TAULA ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZAK (2020-2023)

	2020	2021	2022	2023
Lan-poltsak handitzeko prozesu kopurua	1	1	1	4
Lan-eskaintzetarako harpidedunak	100.845	103.677	*	
Eusko Jaurlaritzako EPera deitutako prozesuak			138	2
Atariko lan-eskaintza kopurua				8

* 2022/02/01etik aurrera desagertu da harpidetza zerbitzua, Adi Ivp aplikazioa martxan jarri genuelako.



Hizkuntza-eskakizunak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak

Ohiko deialdiak sei hilabete behin antolatzen ditu IVAPek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileentzat. Hauek dira 2023an egindako deialdien emaitza orokorrak:

14. TAULA EMAITZA OROKORRAK				
Deituak	Aurkeztutakoak		Gaingidutakoak	
9.129 E = 5.878 G = 3.330 EB = 9 DG = 2	6.487 E = 4.234 G = 2.245 EB = 8 DG = 0	% 71,05	601 E = 272 G = 267 EB = 2 DG = 0	% 9,26

* E = emakume / G = gizon / EB = EZ-Binarioa / DG = daturik gabe.

15. TAULA EMAITZA OROKORRAK DEIALDIKO		
Deialdia	Aurkeztutakoak	Gaingidutakoak
Lehen deialdia	3.718 E = 2.480 G = 1.232 EB = 6 DG = 0	309 (% 9,88) E = 188 G = 118 EB = 3 DG = 0
Bigarren deialdia	2.769 E = 1.754 G = 1.013 EB = 2 DG = 0	234 (% 8,45) E = 84 G = 150 EB = 0 DG = 0

* E = emakume / G = gizon / EB = EZ-Binarioa / DG = daturik gabe

2023an, ohiko deialdien bidez, 601 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.


Ohiko deialdien azterketak egiteko egunak

2023_1 deialdiko azterketak: azterketa idatzia apirilaren 22an egin zen eta ahozko azterketak ekainaren 15ean eta 16an.

2023_2 deialdiko azterketak: azterketa idatzia urriaren 28an egin zen eta ahozko azterketak abenduaren 14an eta 15ean.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak

Administrazio Publikoko erakundeek (udalak, foru aldundiak, etab.) lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzen dituztenean, IVAPi eskatzen diote hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta zuzentzeko.



Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia

Hautaketa-prozesuetako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, deialdi bateratuak antolatzen ditu IVAPek, bat edo bi hilean. Eraginkortasunari begira, hainbat administrazioari edo hautaketa-prozesuari lotutako hautagaiek hartzen dute parte deialdi berean. 2023. urtean, hauek izan ziren egindako deialdi bateratuak:

2023an, deialdi bateratu zein hautaketa-prozesuen bidez, 303 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Hortaz, 904 hizkuntza-eskakizun egiaztatu dira, guztira, 2023an.


16. TAULA DEIALDI BATERATUAK					
Lurraldea	Deialdi kopurua		Deitutakoak	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Araba	4	11	1.090	455 (% 41,17)	40 (% 8,79)
Bizkaia	4		E = 10	E = 17	E = 15
Gipuzkoa	3		G = 10	G = 5	G = 25
			EB = 0	EB = 0	EB = 0
			DG = 1.070	DG = 433	DG = 0

E= emakume / G= gizon / EB= EZ-Binarioa /DG= daturik gabe.

2023an, deialdi bateratuen bidez, 40 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Ohiko deialdiez eta deialdi bateratuez gainera, 2023an berriazko hautaketa-prozesuetako deialdietan ere aplikatu dira hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak: Ertzaintzaren 30. promozioeko EPEn eta Udaltzainen deialdi bateratuan. Deialdi horretan, 81 hautagaik hartu dute parte eta 2k gainditu dute (% 6,2); Osa-kidetzako EPE 2018-2019ko euskara azterketak ere egin zituen IVAPek 2023an, ohiko lehen deialdiarekin batera. Deialdi horretan, 4.341 hautagaik hartu dute parte eta 261ek gainditu dute (% 06,01).

2023an, hautaketa-prozesuen bidez, 263 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.





Azterlan eta ikerkuntzaren sustapena

Ikerketarako laguntzak

Administrazio Publikoarekin, Zuzenbide Publikoarekin edo Administrazio Zientziarekin zerikusia duten gaien buruzko ikerlanak egiteko deialdia diseinatzea eta kudeatzea. Deialdian aurkeztutako azterketek eta ikerlanek aitaturiko gaiak jorra ditzakete hainbat ikerkuntza ikuspuntutatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta administrazio publikoen jardunaren arloarekin lotura izan behar dute.

Ikerketa sariak

Jesus Maria Leizaola sarirako deialdia diseinatzea eta kudeatzea, euskal autonomia eta/edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronkei aurre egiteko gobernantza publikoa xede duten eta edozein ikuspegi zientifikotatik egindako ikerlanetarako.

Lege eta antolakuntza arloko aholkularitza lanak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak antolatzearekin eta hobetzearekin zerikusia duten gaien gainean, eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea, aholku-eskaerei erantzutea eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkaria

Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria

Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariaren idazkaritza teknikoaren kudeaketa.

17. TAULA. IKERKETA-LANAK ETA LAGUNTZAK

Esleitutako laguntza lanak egiteko deialdia 2022-2023	Hutsik geratu dira azken bi urteetako deialdiak.
Esleitutako laguntza lanak egiteko deialdia 2023-2024	

2023an, epaimahaiak aho batez erabaki du:

- “Jesus Maria Leizaola” saria hutsik uztea.
- “Jesus Maria Leizaola” sariaren akzesita hutsik uztea.

Jardunaldi eta mintegi berezituak

Topaketak taxutzea eta antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasunei, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaietan sakontzeko.

18. TAULA JARDUNALDI ETA MINTEGI BEREZITUAK			
Izenburua	Data	Lekua	Parte hartzaileen kopurua
Eskubide digitalak eta administrazio publikoak	Maiatzak 2	Deusto	80
Epaile nazionala eta Europako oinarrizko eskubideak	Maiatzak 4 eta 5	Donostia-San Sebastián	38
<i>Ius Constitutionale Commune</i> eta haren arabeko interpretazioa	Uztailak 12, 13 eta 14	Online + Donostia-San Sebastián	33
Federalismoaren erronkak eta Espainiako sistema autonomikoa	Irailak 4 eta 5	Online + Donostia-San Sebastián	50
Lege-gatazkak eta lurraldeen arteko zuzenbidea	Irailak 27	Donostia-San Sebastián	31
Gernikako Estatutuaren jatorriari eta oraingo eta etorkizuneko egoerari buruzko oroitzapenezko jardunaldia	Urriak 23	Donostia-San Sebastián	140
Zuzenbide zibila eta lurralde-parlamentuen eskumenak	Azaroak 15	Vitoria-Gasteiz	55



Argitalpenak eta liburutegia / Dokumentazio-gunea

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua

Liburutegiak / Dokumentazio-guneak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuen berri ematea erabiltzaileari, eta informazioa eta dokumentuak bilatzeko laguntzea. Liburutegiak ez badu eskatutako baliabideren bat, beste liburutegi edo zentro batzuetan aurkitu eta eskuratu ahal izateko informazioa ematen zaio. Zerbitzu horren barruan sartzen da erabiltzaileari online katalogoa erabiltzeko argibideak ematea, liburutegiko funtsak kontsultatzeko, bai eta funts horien eskuragarritasuna eta maileguen egoera ere.

Informazio eta erreferentzia zerbitzu hau bermatzeko, eskura dauden baliabide guztiak erabiltzen dira, bai Liburutegi / Dokumentazio-gunekoak, bai kanpokoak. Azken horiek liburutegien arteko maileguaren (Eusko Jaurlaritzako langileentzako zerbitzu eskusiboa) eta Interneten bidez.

Funtsak erabiltzeko zerbitzua (Hirigintza eta Ingurumena)

Liburutegiko / Dokumentazio-guneko funtsak kontsultatzeko aukera ezberdinak eskaintzen dira:

- Irakurgelan bertan, monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzea.
- Liburutegiko / Dokumentazio-guneak harpidetzan dituen aldizkako argitalpenen artikuluak banatzea.
- Mailegua: funts monografikoak liburutegitik kanpo erabiltzeko aukera ematen du.
- Liburutegien arteko mailegua: IVAPeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek beste erakunde batzuetako liburutegietan dauden dokumentuak IVAPeko Liburutegian / Dokumentazio-zentroan eska ditzakete.
- Eusko Jaurlaritzako liburutegien arteko maileguak, erabiltzaileek guztien funtsak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Erreserba: erabiltzaileek materiala erreserbatzeko aukera dute, hau da, katalogoan kontsultatutako obraren bat, kontsultaren unean mailegu egoeran dagoena, aldeztatik eskatzeko aukera.
- Maileguak berritzea: erabiltzaileek maileguan daukaten obra beraren mailegu epea luzatzeko aukera dute, aurretik beste pertsona batek erreserbatu ez badu.
- Erreprografia: maileguan eraman ezin diren materialetarako zerbitzua.



Informazioaren gaikako hedapena egiteko zerbitzua

Aldiro-aldiri, Hirigintza eta Ingurumena arloei buruzko informazio buletinak idaztea.

Web bidezko zabalkunde-zerbitzua

IVAPen webgunearen bitartez, honako produktu hauek zabaldu nahi dira:

- Liburutegi / Dokumentazio-guneko katalogoa
- Dokumentu berrien buletina
- Aukeratutako Informazioaren Hedapenerako buletinak
- Esteka interesgarriak

20. TAULA LIBURUTEGIA / DOKUMENTAZIO-GUNEAREN DATUAK

Erantzundako informazio-kontsultak	59
Erabilitako funtsak, irakurgelan bertan kontsultatuta eta posta elektronikoaren bidez bidalita	519
Etixerako maileguak eta maileguak berritza	67
Liburutegien arteko maileguak	11
Prestatutako, zabaldutako eta web-orrian argitaratutako Hirigintza eta Ingurumenari buruzko Buletinak	7
Hirigintza eta Ingurumenari buruzko Buletinen jasotzaileak	542
Web-orrian argitaratutako Liburu Berrien Buletinak	4
Liburutegiaren web-orrian egindako kontsultak	6.369



Informatika-unitatea

IVAPeko aplikazio informatikoak kudeatzea eta mantentze-lanak egitea

Mantentze-lan egokitzaleetan, 8.500 ordu inguru sartu dira: IVAPeko 23 aplikazio eguneratu dira, hobekuntza teknologikoak eta segurtasun hobekuntzak eginez; horretaz gain, funtzionalitate berriak gehitu dira kudeaketa-beharrei erantzuteko.

Mantentze-lan egokitzaleen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Euskaltermek Internetetik egiten dituen bilaketak hobetzea eta terminologia-fitxen kudeaketa optimizatzea Terminologia zerbitzutik.
- Osakidetzarekin batera, web zerbitzu bat garatu da, Osakidetzako langileek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdietan telematikoki izena eman ahal izateko. Web zerbitzuak automatikoki egiaztatzen du interesdunak Osakidetzan lan egiten duen eta, beraz, eskaera egiteko aukera ematen dio, eskabi-deen kudeaketa nabarmen hobetuz.



➤ **Adi IVAPen** —gailu mugikorretarako aplikazioan— hizkuntza-eskakizunei buruzko berritasunen jakinarazpen berria gehitu da. Era berean, enplegu publikoaren eskaintzetan iragazki bat sartu da aplikazioaren erabiltzeek hala eskatuta. Iragazki horrek aukera ematen du izena emateko epea irekita dutenetatik edo amaituta daudenetatik bereizteko. 2023. urtearen amaieran 9.471 pertsonak zuten Android aplikazioa, eta iOSen 6.772 deskarga egon ziren.



Garapen informatiko berriak

Aplikazio berri bat garatu da Interneten, Itzulpen Zerbitzu Ofizialak herritarren eskura jarriko dituen itzulpen-memoriak modu irekian kontsultatzeko.



Lankidetzaren informatikoa beste erakunde batzuekin

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Arabako Batzar Nagusien, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Eusko Legebiltzarraren esku jarri da hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa, haien deialdiak egiteko.

Itzulpengintza, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkera

Betiko moduan jarraitu du IZOk Eusko Jaurlaritzak agindutako testuak itzultzen eta berrikusten; eta, horrekin, batera, interpretazio-lanak ere bere ildotik jarraitu du. Horiez gain, "Bestelako atazak" atala sortu da, Itzulnet aplikazioan jasotzen ez ziren itzulpengintzaren berezko zereginak ere (prozedurak, tresna automatikoen mantentze-lanak...) IZOko kideei esleitu ahal izateko.

Hitz-kopuruak kontuan hartuta, guztira, ia 22 milioi hitz itzuli edo berrikusi dira 2023an, hau da, aurreko urtean baino bi milioi gutxiago. Espediente kopuruan ere, pixka bat jaitsi da, 8.470 espediente izan baitira guztira 2023an (iaz baino 500 espediente gutxiago). Dena dela, gogoratu behar dugu IZOren helburua ez dela hitz kopurua handitzea, testuen eta itzulpenen kalitatea hobetzea baizik.

Esan behar da BERRIKUSKETA gero eta pisu handiagoa ari dela hartzen itzulpengintzaren kaltetan. Labur esanda, EHAArako lanek hartzen dute IZOren lan-kargaren zati handia. Arlo horretatik kanpo, berrikusketak oso urriak dira. Espediente kopuruari begiratuta, 2023ko espedientetatik ia bi heren (5.267 espediente) EHAAko berrikusketak izan dira. Tipologia horretako espedienteak tramitazio-lan handia ematen dute, eta, egia esanda, ez dakarte itzulpenek dakarten onura: itzulpenetan euskarazko bertsioaren informazioa jasota dago (nork sortu, noiz, nola...), erabilgarri dago itzulpen-memoretan edo IDABAn, eta esaldi hori berrerabiltzen den bakoitzean hobetu eta eguneratu daiteke.

Berrikusketa-espedienteak IZOren sisteman txertatzen hasi gara 2023an eta espediente asko (batez ere, Dekretuak) lerrokatu eta memorieta txertatu egiten dira. Dena dela, aurrera begira, berrikusketaren arloa normalizazioan hain garrantzitsua izanik, berariaz landu beharrekoa da, modu integralean tratatzeko modukoa: teknikariei aholkuak eman behar zaizkie, pedagogia-lana egin behar da, hizkuntza-tresnak egokiro erabiltzeko prestakuntza... Azken batean, ahalegindu behar genuke funtzionarioei eguneroko lanean hizkuntza-protagonismoa ematen eta egungo lan-prozedurak egokitzen, eragingarriagoak izan gaitezten. Ildo horretan, laguntza handikoa izan da Idazlagun zerbitzua.

Itzulpengintza

ITZULPENGINTZA nagusitzen da hitz kopuruari begiratuta (15.804.140 hitz), IZOOn kudeatutako ia hiru laurden itzulpen-espedienteak izan dira, eta, beraz, laurdena pasatxo berrikuspen-espedienteen hitzak izan dira (5.848.749 hitz). Itzulitako testuen artean, jarraitu dugu zirkulazio-baimenari lotutako materiala eta galdetegiak itzultzen, HPS, DGT eta auto-eskoletako federazioa laguntzailerle ditugula. Era berean, *Udal Gida* liburua eguneratzen eta egokitzen jardun dugu, EAEko udaletxeetan ohiko jardunean erabiltzen diren lege-baliabideak eskuragarri izan ditzaten euskaraz ere. Aipatzekoa da, IVAPeko Hautaketa Zerbitzuak antolatutako ohiko hautaketa-probez gainera, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren barruan hautaketa-probak egiteko beharrezko izan diren galdetegi bereziak itzultzen egindako esfortzua. Azterketa-eredu asko izan dira askotariko gai konplexuei buruz, epeak estuak eta konfidentzialtasuna zaintzeko metodologiak korapilatsuak izan baitira. Kirolaren arloan, ikas-materialak itzultzen jarraitu da, eta futbol-arloa, txirrindularitza, esku-pilota eta errugbia landu ondoren, karatea, arrauna eta beste kirol mota batzuetako materialak euskaratu dira.

Ohi denez, 2023an egin diren lege-aurreproiektuak ere euskaratu ditugu Legebiltzarrerara bidaltzeko, esan bezala, bi bertsioen arteko kalitatea eta baliokidetzak juridikoa bermatzeko jarraibideak zehaztuta. Horrela, lege-testuen itzulpen eta zu-

zenketaren arloan, legegintza honek oraingoz gailurra jo du 19 lege-aurreproiektu jaso baitira itzultzeko, aurreko urtean baino lau gehiago; guztira, milioi erdi hitz baino gehiago (570.229 hitz). Nabarmendu behar da ahalegin handia egin dela 6 lege zahar eguneratzeko Legegintza Dekretu bidez, bertsio desegokia baitzuten, 6/2022 Legea betetzearren. Idazketa elebiduna helburu modura jartzeko ahaleginak egin ditu IZOk Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Eusko Legebiltzarreko ordezkariekin batera. Dena dela, lehenik eta behin, lege-aurreproiektuen bi hizkuntza-berzioak izapidetzeko egungo itzulpen-prozedurak hobetu behar dira, korredakziora iristeko bidean, eta horretan gizarteak eta eragile guztiek hartu behar dute parte.

Era berean, Estatuko legedian ere itzuli dira eragin handiko legeak, Oroitza Demokratikoaren Legea eta Kontratuen Legea, besteak beste. Prozedura Zibilaren Legearen bertsio kontsolidatua ere ekarri da euskarara, aspaldidanik Justizia Sailarekin batera hasitako proiektua bukatzeko.

IDABA

IDABA, hasieran, IZOrako itzulpenen datu-basea izan zen, itzulitako testuak kontsultatzeko eta itzulpenari buruzko informazioa eskuratzeko. Gaur egun, corpus elebidun handi hau EAEko Administrazio osora dago zabalik Euskal sarearen bitartez. Bertan, Administrazioko edozein langilek aurki dezake euskal bertsioei buruzko informazioa, terminologikoa zein fraseologikoa. Duela hiru urtetik hona, itzultzaile automatiko neuronalak sortu eta hedatu zenez, alegia, IDABaren erabilera apalduz joan da; aurten, berriz, pixka bat igo da kontsulta kopurua (41.774 kontsulta 2023an, aurrekoan baino 750 gehiago). Era berean, kontsultarako IDABAn gehitu den testu kopuruak ere gora egin du modu apaleari (12.349 testu sartu dira). IDABAn dagoeneko, dokumentu asko jarri dira herritarrentzat eskuragarri, batez ere, testu arauemaileak. Lehen fasea burututa, dena prest dago bigarren faseari ekiteko eta testu gehienak Interneten ikusgai jartzeko.

Itzultzaile automatiko neuronalak

IZOk itzultzaile automatiko neuronalaren emaitzak hobetzeko bidean jarraitzen du: neuronalaren itzulpenetan atzemandako akatsak jaso eta jakinarazten ditu, hurrengoetarako zuzendu ditzaten; oro har, itzulpenean eraginkortasuna areagotzeko jarraibideak eman ditu IZOk, eta egindako proben emaitzei buruzko balorazioak egin ditu. IANen erabiltzaileek jakin behar dute tresna batek automatikoki egindako itzulpena dela, eta arretaz irakurri eta zuzendu behar dela testua beti. Bestalde, Administrazioako langileek euren iritzia emateko bide bat erabiltzen dute, eta IZOk iradokizun horiek jaso eta aztertzen ditu itzulpen-tresna automatikoa hobetzeko.

Interpretazioa

Interpretazio-zerbitzuetan, ehun saio inguru izan dira 2023an ere, zehazki, 98 saio guztira. Gure bezero nagusia Gobernantza Saila bera izan da (saioen herena, % 13); nabarmentzeko modukoak dira, era berean, Hezkuntza Saila (% 18), Arabako Biltzar Nagusiak (% 13) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila (% 7).

Itzultzaile eta interpreteen prestakuntza

Prestakuntza-jarduerak 15 izan dira 2023an, aurreko urtean baino 1 gehiago. Guztira, 503 prestakuntza-ordu izan dira. Saio eta ordu horietan IZOk kideen % 85ek hartu dute parte jardueretako batean (edo batean baino gehiagotan). Juan Gartzia emandako “ELIAN: Esaldi Luzeak Itzultzeko Adimen Naturala” izan zen IZOkide guztientzako jarduna. Horrez gainera, bost IZOkidek “*Dena da erlatiboa*” ikastaroa egin zuten, eta beste zazpi UZEIk antolatutako TERMINOLOGIA jardunaldia.

20. TAULA IZOREN LAN-KARGA				
	Espedienteak	EHAArako hitzak	Bestetarako hitzak	Hitzak, guztira
Itzultzeko eta berrikusteko onartutakoak	8.470	9.611.416	12.041.473	21.652.889
Itzultzeko onartutakoak	3.203	4.144.070	11.660.070	15.804.140
Berrikusteko onartutakoak	5.267	5.467.346	381.403	5.848.749
IZOk itzulitakoak	1.237	2.162.782	3.206.945	5.369.727
Hornitzaileek itzulitakoak	1.966	1.981.288	8.453.125	10.434.413

21. TAULA ITZULI/BERRIKUSITAKO TESTU-MOTAK			
	Hitzak	Ehunekoak	Eskaerak
EHAArako ebazpenak	3.982.335	18	2.637
Txostenak	2.192.845	10	271
EHAArako aginduak	2.874.920	13	875
Prentsa-oharrak	1.270.730	5	480
BOErako lege-xedapenak	188.973	1	6
EJ-Ebazpenak	1.085.645	5	181
Gidak	1.622.090	7	198
EHAArako dekretuak	1.974.646	9	250
Arau-txostenak (COJUA...)	997.010	4	57
EHAArako iragarkiak	432.157	2	2.241
Liburuak	184.598	1	12
Araua-EAE-Lege-arauak	644.464	3	33
EHAArako akordioak	270.590	1	93
Ereduak	101.460	1	42
Gutunak, aktak...	147.694	1	116
Jakinarazpena (EHAA)	73.850	1	70
Zirkularrak	172.255	1	24
Ediktuak (EHAA)	2.918	1	20
Arartekoa	109.406	1	74
Bestelakoak	3.324.303	15	790

22. TAULA INTERPRETAZIO-SAIOAK (2018-2023)						
	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Interpretazio-saioak	146	136	76	111	101	98

23. TAULA INTERPRETAZIO-SAIOAK BEZERO MOTAREN ARABERA		
Bezero mota	Saio kopurua	Ehunekoak
EAEko Administrazio orokorra	64	65
EAEko gainerako sozietate publikoak	33	34
Enpresak	1	1

24. TAULA INTERPRETAZIO-SAIOEN BEZEROAK		
Bezeroak	Saio kopurua	Ehunekoak
Hezkuntza	17	18
Gobernantza publikoa eta autogobernua	13	13
Arabako Biltzar Nagusiak	13	13
Kultura eta hizkuntza-politika	7	7
Emakunde	2	2
Bestelakoak	46	47

25. TAULA IDABA (2018-2023)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Dokumentu kopurua	9.915	10.303	10.949	10.624	12.167	12.349
Kontsulta kopurua	179.334	156.956	53.805	46.232	41.037	41.774

26. TAULA ITZULPENGINTZA JURIDIKOA

Eusko Jaurlaritzaren lege-egitasmoekin lotutako testuak	6 testu
Estatuko Aldizkari Ofizialaren euskarazko gehigarria	
Eguneroko I. atalaren aurkibidea	6 aurkibide
Lege-mailako xedapenak	24 xedapen

Terminologia

Terminologia Batzordeak 2021eko udazkenean onartutako plangintzari jarraituz, hainbat jakintza-arlotako hiztegi terminologikoak landu ditu Terminologia Zerbitzuak, euskarazko terminologia bateratzeari eta normalizatzeari begira. Lantze-prozesu horretan, hiztegiak sortu, eguneratu, batzorde teknikoetan aztertu, eta, azkenik, Terminologia Batzorderako prestatu ditu, haren onspena jasotzeko. Horretaz gain, kontsulta puntualak erantzun ditu, eta hustuketa terminologikoak egin Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean euskaratu beharreko erreferentziazko lege-testu batzuetarako. Langintza horretan guztian, 8 hiztegi terminologiko landu ditu, eta, hala, Euskalterm/Izoterm datu-base terminologikoak elikatzen jarraitu du, 3.060 sarrera gehituta. Azkenik, Osakidetzatik egindako eskaerari erantzunez, osasungintzako 14 hiztegi terminologiko egokitu ditu Itzultzaile elikatzeko, osasun-arloko itzultzaile automatiko neuronala.


Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Hiru hilabeterik behin argitaratzen den aldizkaria, 1993an sortua.

27. TAULA ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ ALDIZKARIA

Argitaratutako zenbakiak	Harpidedun kopurua
119	14.553
120	14.563
121	14.504
122	14.541

- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, [IVAPeko webgunean](#)
- Aldizkariarekin batera, *Solasaldiak* izeneko eranskina ematen dugu argitara. 26 orrialdeko eranskin horretan, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu urtean behin. 2023an, Roge Blasco kazetaria elkarrizketatu dugu.



2023ko *Solasaldiak* izeneko eranskinaren azala

Elet

Aplikazio informatiko edo web-atari integratu honek hainbat hizkuntza-baliabide eskaintzen ditu euskaraz errazago lan egiteko; oso aplikazio erabilerraza eta intuitiboa da.





Berdintasun-unitatea

IVAPen 2021-2024 plan estrategikoaren helburuen artean, berdintasuna hobetzeko ekimenak jasotzen dira. 2021. urtean, IVAPeko Berdintasun teknikari lanpostua sortzen da eta, horrekin batera, Berdintasunerako zerbitzua egituran kokatzen da. Aipatutako konpromisoan aurrerapauso garrantzitsua ematen da, helburua lortzeko oinarritzko baldintzetako bat jarrita.

Berdintasun zerbitzuaren egitekoak, besteak beste, honako hauek dira: IVAPen berdintasun-planak eta -programak proposatzea, haien jarraipena egitea, genero-ikuspegia txertatzea erakundearen jardura-eremuan, erakundeko pertsonalari aholku ematea, pertsonalaren prestakuntzari buruzko diagnostikoa eta proposamenak egitea, eta berdintasun-politiken koordinazio teknikoan parte hartzea.

2022. eta 2023. urteetan, Berdintasun Zerbitzua egonkortzen joan da IVAPen egituran. Zeharkako lana eta koordinazioa indartu dira Berdintasunerako Barne Batzordearen bidez, bai eta parte-hartze aktiboa ere, koordinaziorako beste gune batzuetan.

Izan ere, erakundearen EKI planaren barruan, Batzorde hori indartzeko proiektu bat garatu da. Horrela, izan behar duen garrantzia eman nahi zaio: bere jardura areagotuz eta hobetuz, zerbitzu guztietako ordezkariekin, berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatu ahal izateko.

Berdintasun Plana indartu da, diagnostikorako eta datuak biltzeko baldintzak garatuz, besteak beste, hurrengo urtean garatu ahal izateko.

Era berean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina sartuta eta aurreko legearekiko aldaketak eginda, zerbitzu bakoitzak bere jardura-eremuan zer eragin duen identifikatu ahal izateko moduan aztertu da. Dokumentu hau Erakundearen Intranetean dago eskuragarri.

Bestelako erakundeekiko koordinazioa

IVAPeko Berdintasun zerbitzuak lan aktiboa egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean eta baita Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako Berdintasun Batzorde Iraunkorreen ere. Besteak beste, lehenengoan EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VIII. planaren diseinuan parte hartzen ari da. Eta, bigarrean, II. Berdintasun-plana egiteko lanketan aritu da.

Era berean, Gobernantza eta Autogobernu saileko Berdintasunerako talde teknikoan ere parte hartzen du

8

Argitalpenak


IVAPek bakarka zein beste batzuekin batera argitaratutako monografiak

Hirigintza Kodea (Euskadi. 2022ko urtarrila)

TEJERINA GONZÁLEZ, José Ignacio eta CEREZO IBARRONDO, Álvaro
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-680-2. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-681-9.

Jardueren Oroitza 2022 / Memoria de actividad 2022

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-658-1 Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-693-2 (euskaraz) Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-692-5 (gazteleraz).



Udal gida (2023) / Guía local (2023)

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-690-1


Fondos Next Generation EU: Retos y desafíos. Especial referencia a la gobernanza multinivel territorial

UGARTEMENDIA, J. Ignacio eta MARTINICO, Giuseppe
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-688-8.



Herritarren segurtasuna eta oinarrizko eskubideak

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki; ARRESE IRIONDO, M^a Nieves eta CUBERO MARCOS, José Ignacio
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-686-4.



Notitia Vasconiae. Baskoniako historialarien, legelarien eta pentsalari politikoen hiztegia. II. Liburukia. 1793-1876

JIMENO ARANGUREN, Roldán (zuz.)
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-684-0.

La ley ante el control de europeidad y de convencionalidad

IVAP
Oñati (Gipuzkoa): Instituto Vasco de Administración Pública = Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2023. ISBN: 978-84-7777-682-6.

IVAPen argitalpen seriatuak

Administrazioa Euskaraz

Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 1993. ISSN: 1576-5563. 2023: 119 (AE119.pdf), 120 (AE120.pdf), 121 (AE121.pdf) eta 122. zenbakiak (AE122.pdf); “Solosaldiak” 20. zenbakia (Solosaldiak20_OL.pdf).



Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública



Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 1981.

Lau hilabetetan behin.

ISSN: 0211-9560.

Ed. digitala ISSN: 2695-5407.

2023: 125 (RVAP 125 2023 DIG.pdf),

126 (RVAP126 DIG 003.pdf) eta 127. zenbakiak (RVAP127 DIG.pdf).



Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas


Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua = Instituto Vasco de Administración Pública, 2011.

Sei hilean behin.

ISSN: 2173-6405.

Ed. digitala ISSN 2531-2103:

2023: 24 (RVOP 24 PR4 DIG 1.pdf) eta 25. zenbakiak (RVOP 25 PR6 DIG.pdf).





9 IVAPeko kideen parte-hartzea biltzarretan, jardunaldietan eta ebaluazioetan

- 2023ko martxoaren 1a: IVAPen 40. urteurrenaren ekitaldi instituzionala
- 2023ko apirila: Emakumeen lidergoari buruzko ikastaroak Administrazio Publikoan
- 2023ko apirila: Administrazio publikorako sarbideari buruzko tailerra. Bizkaiko Ekonomilarien Elkargoak antolaturiko jardunaldia
- 2023ko maiatzaren 2a: Eskubide digitalei eta administrazio publikoei buruzko jardunaldia, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta IVAPek antolatua
- 2023ko maiatzaren 4a: EBko zuzenbidearen aplikazio judizialari buruzko V. jardunaldiak: “Epaile nazionala eta Europako oinarritzko eskubideak”
- 2023ko maiatzaren 15a: Q-epearen zerbitzu-karten ebaluatzaileen birziklatze saioa
- 2023ko maiatzaren 19a: Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkariaren Aholku Batzordea
- 2023ko maiatzaren 30a: Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilera
- 2023ko ekainaren 8a: Euskadiko Sektore Publikoko Emakumeen ekitaldia, arrisku digitalei eta emakumeari dagokienez
- 2023ko ekainaren 16a: Q-epearen Jardunbide Egokien saioa: “GJH Garapen Jasangarrirako Helburuen Kudeaketa”
- 2023ko ekainaren 19a: Bizkaiko Foru Aldundiaren GovTech saioa
- 2023ko uztailaren 27a: Emakunderen Sailarteko Batzordea
- 2023ko irailaren 22a: IVAPen 40. urteurrenaren ekitaldi korporatiboa (adimen artifiziala lan-eremuan)
- 2023ko irailaren 29a: Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkariaren Aholku Batzordea
- 2023ko urriaren 10a: Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilera
- 2023ko urriaren 19a: EUSKALITen biltzarra (Kudeaketa aurreratua, digitalaren eta gizatiarraren artean)
- 2023ko urriaren 27a: Europar astearen barruan, Q-epeak antolatua: Adimen Artifizialarekin batera.
- 2023ko azaroaren 15a: zuzenbide pribatuko jardunaldia: “El derecho civil y las competencias legislativas de los parlamento territoriales”, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta IVAPek antolatua
- 2023ko urria-azaroa: Euskal enpresa baten kanpo-ebaluazioan parte-hartzea, EUSKALITeko Ebaluazio Klubeko kide gisa
- 2023ko abendua: Australiako Gobernuaren ordezkariak baten bisita, Eusko Jaurlaritzaren itzulpen-sistema ezagutzeko, adibide gisa IZO zerbitzua hartuta
- 2023ko abenduaren 13a: Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluaren bilera
- 2023ko abenduaren 15a: IVAPeko Zaingo Batzordearen bilera

